

IRAKASKUNTZA-GIDA 2022/23

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

25098 - Tratamendu Psikologikoak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Graduko irakasgaien banaketaren arabera, "Tratamendu psikologikoak" irakasgaia hirugarren mailan kokatzen da, bigarren lauhilekoan. 6 kreditu ditu.

EHUko Psikologia Graduko Titulazio Gidan jasotzen den bezala, hirugarren ikasturtean, Psikologiako jarduera profesionalera zuzendutako prestakuntza-helburu aplikatuenei erreparatzen zaie. Ikasleek ebaluazioari, diagnostikoari eta tratamendu psikologikoei ekin behar diete, hainbat prozesu eta portaeratan (normalak eta patologikoak) eta hainbat testuingurutan aplikatzeko. Osasunaren, hezkuntzaren eta erakundeen arloetan esku hartzeko eta aholkatzeko teknika nagusiak ezagutu behar dituzte, inplikaturako alderdi etikoak eta deontologikoak kontuan hartuta. Era berean, ikerketa esperimentaleko diseinu nagusiak eta horiekin lotutako datuak aztertzekeo teknikak ezagutu behar dituzte. Horrez gain, ikasleak psikologiaren garapen profesionalaren berezko gaitasunetan hasten dira, gatazka-egoerak kudeatzeko estrategia nagusiak, negoziazio- eta bitartekaritza-estrategiak eta taldeak eta lantaldeak errazteko estrategia ezagutuz. Jarraian aurkezten den irakaskuntza-programaren proposamenaren helburua da ikasleek ikasgairako ikasketa-planean zehaztutako gaitasunak eskuratzea, horretarako berariaz diseinatutako gai-zerrenda eta irakaskuntza-metodologia baten bidez.

Ikasleek sistema teoriko edo ikuspegi psikoterapeutiko nagusiak ezagutu behar dituzte: oinarri teoriko-kontzeptualak, eredu psikopatologikoak eta prozedura psikoterapeutiko nagusiak. Gainera, ikasleek, eredu horien ezagutzatik eta lortutako ebidentzia enpirikotik abiatuta, kasu zehatz bakoitzean zein tratamendu den gomendagarriena bereizi ahal izatea sustatu nahi da. Era berean, tratamendu-prozesuak berak fase guztietan duen garrantziaren ulermena sustatu nahi da, eta eredu teoriko bakoitzeko teknika garrantzitsuenei lotutako helburu terapeutikoen ezagutza bultzatu. Era berean, ikasleek jardunbide egokia onartzen jakitea lortu nahi da, printzipio etiko sendoetan oinarritutako jardun profesionaletik eta indarreko legeria betetzetik abiatuta.

Bestalde, ikasketa-planaren zeharkako gaitasunak kontuan hartuta, taldean lan egiteko gaitasuna, azterketa kritikoa eta datu zientifikoen iturriak eta informazioaren teknologiak erabiltzeko autonomia garatzea bilatzen da, etorkizunean ezagutzak autonomiaz eguneratzeko. Azken batean, ikaskuntza esanguratsua eta integratua lortu nahi da graduaren ikaskuntza globalaren barruan.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

G006 (C3CC12) Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzekeo eta laburtzekeo gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta

G007 (C3CC13) Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarrekeo zein anitzeko taldeetan lan egitekeo gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikokan baloratuz

G008 (C3CC14) Psikologoaren lanbidea erregulatzen duen lege-esparrua ezagutzea, eta printzipio etikoak eta kode deontologikoa aplikatzeko gai izatea.

G009 (C3CC15) Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikokari ekarpena egitekeo

1. Tratamendu psikologikokoen ezaugarri definitzaileak ezagutzea.

2. Erabiltzaileen beharrak eta esakerak (banakokoenak eta taldekokoenak) identifikatzen jakitea, hainbat testuingurutan.

3. Esku hartze psikologikokoen estrategia eta teknika egokiak hautatzeko eta aplikatzeko gai izatea, ezarritako helburuak lortzeko.

4. Programen eta esku hartzeen ebaluazioa diseinatzeko, garatzeko eta interpretatzeko gai izatea.

5. Informazio espezifikoa bilatzeko, analizatzeko eta laburtzeko gai izatea; txostenak eginez, kasuak analizatzeko gai izatea; eta lortutako emaitzak azaltzeko eta defendatzeko gai izatea.

6. Psikologiaren betebeharrak deontologikokoa ezagutzea eta errespetatzen jakitea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Tratamendu psikologikokoen sarrera.

2. Terapia psikodinamikokoa

3. Jokabide-kognitibo terapiak

4. Terapia sistemikokoa

5. Terapia humanistak, existentzialak eta esperientzialak.

METODOLOGIA

Irakaskuntza teoriko-praktikoa da.

Eskola magistralak, praktikako talde saioak eta banakako lanak egiten dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|--|----|----|----|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 36 | 8 | 8 | | | | 8 | | |
| Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a | 54 | 12 | 12 | | | | 12 | | |

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAIA

Eduki teorikoak

Alderdi teorikoaren azken azterketa egongo da test modukoa.

Eduki praktikoak eta seminarioak

Praktiken egutegiaren arabera ebaluazio jarraia egingo da, proposatzen diren gaien inguruko lan gidatuekin.

Azken nota eduki teoriko (%60) eta praktiko gehi seminarioak (%40) puntuazioen batuketa izango da. Beharrezkoa da bi zatiak gaindituta izatea nota gehitzeko.

Deialdiari uko egiteko prozedurari dagokionez, Titulazio Ofizialetako ikasleen ebaluaziorako arautegiko 12.2 artikuluari jarraituz, etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<aurkezteke>> izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

AZKEN EBALUAZIO BAKARRA

Ebaluazio froga bakarrean gai teoriko eta praktiko gehi seminarioen test moduko azterketa egongo da. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa protokoloaren harira, normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere (3.puntua).

UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkozat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, lanak kopiatzea, jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan (2.a puntua).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZOHIKO DEIALDIA

9. artikulua: Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko. Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da. Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba alderdi teorikoaren test moduko azterketaz eta eduki praktikoaren azterketa batez osaturik egongo da. azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea. Ezohiko deialdiari uko egiteko ez aurkeztea nahikoa da.

Kontutan hartu 6.4 artikulua diona: Irakasgai desberdinetako ebaluazio proben datak batera suertatuz gero, irakasgairan bat errepikatzen ari diren ikasleei kalterik ez egiteko, ikasleak data aldatzeko eskatu beharko dio irakasleari ebaluazio proba eguna baino, gutxienez, 15 egun natural lehenago.

17 artikulua arabera, deialdi ofizialeko ebaluazioaren behin-behineko kalifikazioak 12 egun naturaleko epean argitaratu-tuko dituzte irakasleek, ebaluazio proba egiteko data ofizialek kontatzen hasita eta unibertsitateak horretarako prestatuta dituen baliabide informatikoak erabilita.

18 artikulua: Behin-behineko kalifikazioa argitaratzean, kalifikazioa irakasgaiaren ardura duen irakasle edo koordinatzailearekin berrikusteko eguna, tokia eta ordua zehaztu beharko da; berrikuspenerako epea, bestalde, gutxienez hiru egun naturalekoa eta gehienez seikoa izango da, kalifikazioa argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa protokoloaren harira, normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere (3.puntua).

UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkoak ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, lanak kopiatzea, jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan (2.a puntua).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren irakasleak behar den denborarekin eta bitarteko egokienekin eskainiko du irakasgaiaren ordu teorikoak, praktikoak, tailerrak eta seminarioak egiteko beharrezkoa den material teorikoa eta praktikoa.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Díaz, M. I., Ruiz, M. A. y Villalobos, A. (2017). Manual de técnicas y terapias cognitivo conductuales. Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Lambert, M. J. (Ed.) (2013). Bergin & Garfield's Handbook of psychotherapy and behavior change. New York: John Wiley & Sons.
- Prochaska, J. O. y Norcross, J. C. (2018). Systems of psychotherapy. New York: Oxford University Press.
- Rojí, B., & Saúl, L. A. (Eds.) (2016). Introducción a los tratamientos psicodinámicos, experienciales, constructivistas, sistémicos e integradores (3ª ed.). Madrid: UNED.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Ávila-Espada, A. y Poch, J. (1994). Manual de técnicas de psicoterapia. Madrid: Siglo XXI.
- Bellak, L. y Siegel, H. (1987). Manual de psicoterapia breve, intensiva y de urgencia. México: Manual Moderno.
- Caballo, V. (1993). Manual de técnicas de terapia y modificación de conducta. Madrid: Siglo XXI.
- Carwath, T. y Miller, D. (1989). Psicoterapia conductual en asistencia primaria: Manual práctico. Barcelona: Martínez Roca.
- Cormier, W.H. y Cormier, L.S. (1994). Estrategias de entrevista para terapeutas. Bilbao: Desclée de Brouwer.
- Costa, M. y López, E. (2003). Consejo Psicológico. Madrid: Síntesis.
- Echeburua, E. (1993). Modificación de conducta y psicología clínica. Bilbao: UPV.
- Ferro, R. (2000). Aplicación de la Terapia de Aceptación y Compromiso en un ejemplo de Evitación Experiencial, *Psicothema*, 12, 445-450.
- Ferro, R.; Valero, L. y Vives, M.C. (2000). Aplicación de la Psicoterapia Analítica Funcional. Un Análisis Clínico de un Trastorno Depresivo. *Análisis y Modificación de Conducta*, 26, 291-317.
- Fritzen, S.J., (1982). La ventana de Johari. Santander: Sal Terrae
- Froján, M.X. (1998). Consultoría conductual. Terapia psicológica breve. Madrid: Pirámide.
- García Higuera, J. A. (2006). La terapia de aceptación y compromiso como desarrollo de la terapia cognitivo conductual. *eduPsykhé*, 5(2), 287-304.
- García Higuera; J:L. (2007). La terapia de aceptación y compromiso: tercera generación de la terapia cognitivo conductual.
- Fonseca, P. (editor) Manual de tratamientos psicológicos. Pirámide.
- Gavino, A. (1997) Guía de ayuda al terapeuta cognitivo-conductual. Madrid: Pirámide.
- Greenson, R. (1986?). Técnica y práctica del psicoanálisis. Madrid: Siglo XXI
- Grinberg, L. (1981). Psicoanálisis: Aspectos teóricos y clínicos. Barcelona: Paidós.
- Grinberg, L.S. y Paivio, S.C. (2000). Trabajar con las emociones en psicoterapia. Barcelona: Paidós

Labrador, F

Aldizkariak

1. Annual Review of Clinical Psychology
2. Clinical Psychology Review
3. Health Psychology Review
4. Psychological Medicine
5. Depression and Anxiety
6. Journal of Clinical Child and Adolescent Psychology
7. Clinical Psychology-Science and Practice
8. Neuropsychology Review
9. Journal of Abnormal Psychology
10. Journal of Consulting and Clinical Psychology
11. Journal of Clinical Psychiatry
12. European Journal of Psychotraumatology
13. Behaviour Research and Therapy
14. International Journal of Clinical and Health Psychology
15. International Journal of Eating Disorders
16. Clinical Child and Family Psychology Review
17. Body image
18. Journal of Anxiety Disorders
19. Sexual Abuse-A Journal of Research and Treatment
20. Psychological Assessment
21. Personality Disorders-Theory Research and Treatment
22. Journal of Abnormal Child Psychology
23. Behavior Therapy
24. Archives of Sexual Behavior
25. European Eating Disorders Review
26. Assessment
27. Health Psychology
28. Family Process
29. Mindfulness
30. Psychotherapy Research
31. Journal of Sex Research

Interneteko helbide interesgarriak

INTERNETeko BALIABIDEAK:

Asociación Española de Psicoterapias Cognitivas <http://www.terapiacognitiva.net/>

Asociación Española de Psicología Conductual <http://www.aepc.es/web2/>

Asociación española de terapia gestalt <https://aetg.es>

Associations for Contextual Behavioral Sciences <https://contextualscience.org/>

Beck Institute <https://www.beckinstitute.org/>

Center for Anxiety & Related Disorders <http://www.bu.edu/card/>

Feap www.feap.es

Federación Española de Asociaciones de Terapia Familiar www.featf.org/

Institute for Solution-Focused Therapy <http://www.solutionfocused.net/what-is-solution-focused-therapy/>

The Albert Ellis Institute <http://albertellis.org/>

The Gestalt Therapy Page www.gestalt.org

Trauma Focused Cognitive-Behavioral Therapy <https://tfcbt.musc.edu/>

Asociación Española de Psicoanálisis. <http://www.sep-psicoanalisi.org/que-es-la-sep-2/ipa/>

OHARRAK

Aurrez aurreko ebaluazio-sistema egiterik ez badago, irakasgaiaren ebaluazioak irakasgaiaren irakaskuntza-gidan ezarritako sistema eta epeak bete ditzan, eta EHU edonondik plataformaren argibideei jarraituz, aldaketa hauek egingo dira:

Ebaluazio jarraitua aukeratzen duten ikasleei dagokienez, praktikak irakaskuntza ez-presentzialera egokituko dira, klase magistralak bezala. Azterketa aurrez aurreko ebaluazioaren proba bera izango da, baina irakasgaiaren e-gela plataformaren bidez egingo da, galdera bakoitzeko minutu bateko ratioa kontuan hartuta.

Bestalde, amaierako azterketa egiten duten ikasleek bi proba izango dituzte: proba teorikoa eta proba praktikoa. Proba teorikoa etengabeko ebaluazioko ikasleen berbera izango da. Alderdi praktikoari dagokionez, kasu kliniko baten ebazpenak osatuko du. Horretarako prestatutako gune batean entregatuko dute, e-gelan.

Irakaslea espazio birtualean konektatuta egongo da sor daitekeen edozein zalantza argitzeko.